



# Nola eman alta zure etxean enplegatutako pertsonari

## Zer behar dut nire etxean lan egingo duen pertsonaren Gizarte Segurantzako alta izapidetzeko?

Zure etxean lan egingo duen pertsonari alta eman aurretik, adostu harekin lan-baldintzak, lanaldia eta soldata.

### Izapidea egiteko honako hauek beharko dituzu:

- Kontratatzaera zoazen pertsonaren datuak (NAN/AIZ).
- Kuotak helbideratzeko enplegatzailearen kontu-zenbakia (IBAN).
- Aseguru-erakunde bat aukeratzea.

Onurak daude kuotan familia ugaria bazara edo beste baldintza espezifiko batzuk betetzen badituzu.

Gogoratu enplegaturiko pertsona Europar Batasunetik kanpokoa bada, **lan-baimena behar duela.**

#### Gainera...

Eskaitea QRa zure kuota simulatzeko eta zenbat ordaindu beharko duzun jakiteko. Behin betiko zenbatekoa zure egoeraren arabera alda daiteke izapideaosatzean.



#### Beste zalantzaren bat duzu?

Sar zaitez "Guía práctica del empleo en el hogar".



## Nola izapidetuko dut alta Gizarte Segurantzaz?

1

Deskargatu Gizarte Segurantzako Importass App-a [Google Play Store-n](#) edo [App Store-n](#).

2

Sartu aplikaziora eta identifikatu honako hauen bidez:



CI@ve  
Iraunkorra



CI@ve  
mugikorra



SMS  
bidez



Ziurtagiri  
digitala

3

Sakatu "Servicios" atala.

4

Hautatu "Altas, bajas y modificaciones", sakatu "Afiliación y alta de trabajadores" eta, azkenik, "Alta en empleo de hogar".



5

Alta 9 urratsetan bete.




## Ezagutu zure eremu pertsonala Importassen, eta bertatik...

- Gizarte Segurantzako zure Zenbakia egiaztatzen duen dokumentua deskargatu ahal izango duzu.
- Zure datu pertsonalak, harremanetarako datuak eta helbidea eguneratu ahal izango dituzu.
- Lan-bizitzari eta kotizazio-oinarriei buruzko zure txostena kontsultatu eta deskargatu ahal izango duzu.
- "Documentos" atalean sartu ahal izango zara, zure txostenak eta ebazpenak ikusteko.
- Soldata eta lanaldia eguneratu ahal izango dituzu.
- Pertsonari baja eman ahal izango diozu zure etxeko jarduera amaitzen duenean.



## Gizarte Segurantzako Importass app-an eta espazio bat izango duzu...


- Edozein gailutatik erraz nabigatzeko.
- Hizkuntza argiz, une bakoitzean behar duzuna aurki dezazun.
- Zuri egokitua, informazio pertsonalizatuarekin.
- Nondik deskargatu zure txostenak, online izapideak modu errazean egin eta informazioa kontsultatu.



Deskargatu app-a.  
Egin zure mugikorraren bidez izapideak  
eta informazioa kontsultatu.



Sartu Importass-en, Diruzaintzaren  
Atarian, **portal.seg-social.gob.es**-en  
bidez edo eskaneatu honako QR hau:



Jarrai gaitzazu hemen:

**Información TGSS**

@info\_TGSS

